



BERDEGUNE GEHIAGO ARNAS BERRITZEKO

Tolosako Udalak herriko lau zonalde txukundu eta birgaitzeko asmoa du datozen hilabeteetan > 2-3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2008-05-27

VIURTEA 1.444. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Jon Sasiainek hirugarren postua lortu du Espainiako Txapelketan

VILLABONA Olaederrako pultsulariak Orkoienen aritu ziren 5



Arriaran urtegia. N. URBIZU

Ura nola tratatzen den ezagutu dute udal ordezkariak

TOLOSALDEA Gipuzkoako Urak enpresak kudeatzen ditu herri gehienak 4




Giro bikaina izan zen Leizako plazan, batez ere, goizean zehar; artisauek euren postuak jarri zituzten eta animaliak ere ikusi ahal izan ziren. NAIARA GARZIA

LEITZAKO AZOKA, ARTISAUENTZAT LEIHOA

LEITZA 45 postu atondu zituzten herenegun Leizako artisau azokan; ehoziri topaketa ere egin zuten Liñoputzukoek antolatuta eta Nafarroako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 110 lagun bildu ziren 7

Hitza Pilota Txapelketaren datozen partidak gaur izango dira

TOLOSALDEA Kadeteak ariko dira Bidanian; bihar, berriz, seniorrak Tolosan 4



Zumardi Handia berreraikita. 1. Zelai ibaiaren betiko bidea berreskuratuta jarriko duten zubi berria. 2. Oinezkoentzat pasabide berria. 3. Zubi zaharra berreraiki eta mantendu egingo dute. HITZA

BERDEGUNEAK HANDITUZ

Gizartea 'Arnasberritzen' ekimenari esker Udalak herriko lau zonalde txukundu eta birgaitzeko asmoa du datozen hilabeteetan.

H. BELOSO - I. TERRADILLOS

Hilabete batzuren buruan berdegune gehiagoz gozatu ahaliko dugu Tolosan, izan ere, *Arnasberritzen* lelopean, Montezkuko elurtegia edo Elurzulo ingurua, San Esteban auzoko Elozegi parkea, Uzturre mendiaren hego-malda eta Zumardi Handia txukundu eta birgaituko ditu Udalak.

«Herriko ingurumena hobetu eta herritarrei kalitate eta biodibertsitate hobegoko gune berriak eskaintzea da proiektu honen helburua», atzo eginiko aurkezpenan Jokin Bildarratz Tolosako alkateak adierazi zuen bezala.

Montezkuko elurtegia

Ernio mendi-hegalean, Malaka baseritik 500 metrora kokatuta dago elurtegia edo Elurzulo. Antzina, negu garaian, elurra pilaturik gordetzeko egin zen negutegi hau. Elurra zapaldu egin zen izotz bihurtu eta herrira garraia-

tzeko. Harlandu teknikarekin lurrean hondeatutako zilindro handi bat da negutegi hau. 6 hektareako partzela honetan, 1981. urtean pinuen artean landatu ziren pagoak, haritzak eta gaztainondoak espezie hauen hazkundera laguntzeko.

Hala, «inguru horretan dauden pagoen hazkundera erraztu asmoz», pinuak botatzea erabaki du Udalak, «bertako landareak bul-tzatu eta biodibertsitate handiagoko guneak sortzeko». Antton Lekuona Udaleko ingurugiro teknikariak azaldu bezala, «Elurzulo garbitzean oso baso polita geratuko da. Aurten egingo dugu, eta dena seinaleztatuta egongo da».

Uzturre mendiaren hego-malda

Uzturre mendi-hegalean bi lur sailetan bi landaketa daude. Ilunagoa den beheko partean, insigne pinua landatuta dago eta argiagoa den



Antton Lekuona, Manolo Jimenez, Jokin Bildarratz eta Imanol Agirre atzoko aurkezpenan. I.T.

goiko partean, berriz, sylvestris pinua. Guztira 11 hektarea dira Tolosako Udalarenak. Orain, insignis pinuaren ordez haritzak aldatuko dituzte eta sylvestris pinuaren ordez, pagoak. «Uzturrera begiratu zonalde honek kolore berdina du urte sasoi guztian, eta ekimen honekin, Uzturrek urte sasoi bakoitzerako irudi berria izateaz gain, biodibertsitate aberatsagoa izango du», azaldu zuen Lekuonak.

Bestalde, zonalde honetan, telegrafo optiko bat edukitzeko 1845 urtean eraikitako komunikazio dorre bat dago, eta landaketa hauek egitean Tolosatik dorrea ikusteko aukera izango da. Udaberriari hasiko dira zuhaitzak landatzen.

Zumardi Handiaren birgaitzea

Zumardi Handian egingo dituzten lanak izango dira garrantzitsuenak. Bildarratzek aipatu bezala, «herriarentzat pisu handia du Zumardi Handiak, baina urteetan igerilekuarengatik, autobia edota paper lantegiarengatik, aldenduz joan da. Orain, berreskuratu egin nahi dugu, Zelai ibaiaren ezker aldean dagoen parkea birgaituz herriarrek aisialdi eta egonaldietarako erabili dezaten».

Udalak, Papelera Tolosanako egungo meandroko ubidearen ibilbidea aldatuko du, ubidea zabaldu eta inguruaren gaineko eragina gutxitu eta hertzeetako baldintza botaniko eta biologikoak hobetzeko lur-ezponda sortuz. Aspaldian, paper lantegiarengatik

desbideratu egin zen erreka, eta orain paper fabrika ez dagoenez, bere berezko bidera eraman nahi dute berriro. Horretarako, parkeko zuhaitz ilara bat kendu behar da, errekatik hurbilen dagoena, hain zuzen ere. Dena dela, zuhaitz gehiago landatu behar dituztela esan zuen Manolo Jimenezek (1991ean Zumardi Handirako ideien lehiaketa egin zen, eta bera izan zen irabazlea; orain Udalak Zumardi Handiaren birgaitzea bere esku utzi du).

Zoladura eta hiri-altzari berriak eta argi gehiago jarriko dituzte. Era berean, egoera txarrean dauden hiri-altzariak, iturria, harrizko jazarlekua eta podioa berriztatuko dituzte. Bestalde, zubi zahararen ordez, oinezkoentzako pasabide

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

- **Katua.** Katu pertsa ilegorria. Emea. 10 hilabete. Larunbatean galdu zen Leitza. Aurkituz gero deitu telefonoz, 656 71 94 23 (Iñaki) zembakira.
- **Txakurra.** Txakur bat agertu da Orexan. Tamainaertaina, marroi kolorea eta hanketan ile zuria ditu. 943 68 20 35.

LANA

- **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Deitu 685 22 70 58 zembakira.

SALGAI

- **Etxebizitza.** Tolosa erdigunean bi logelako etxebizitza salgai. Egoera onean. Oso merkea. 665 70 86 35.

LASKORAIN IKASTOLAK


Haur Hezkuntzan goi mailako teknikariak behar ditu Derrigorrezkoak: EGA edo baliokidea Esperientzia baloratuko da

Curriculumak e-mailez bidali behar dira tolosa@ikastola.net helbidera Azken eguna, maiatzaren 29a

Tolosako Udala

IRAGARKIA
Alkatetzak honetako maiatzaren 1.eko 866/2008 dekretuaren bitartez, hasierako onepena eman dio honako proiektu honi zenbait baldintzarekin:

E-45 "Igorondo" eremuko urbanizazio proiektua.
Proiektua, interesatuek beren interes aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, HOGEI EGUN (iragarri honen azken argitaratzea egin eta biharamunetik kontatzen hasita) jendaurrean jarrita egongo da. Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruan eta Hirigintzari buruzkoaren, 196.2 artikuluko xedatutaren arabera.
Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berrian, Hitzan eta Diario Vasco argitaratuko da.
Espedientea, inork eztertu nahi badu, Plaza Zaharra, 6-Bko Hirigintza Bulegoan egongo da, aipameneko epean. Alegazio edo erreklamazioak Alkatetari zuzendu behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.
Tolosa, 2008.eko maiatzaren 15ean. ALKATEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Elosegi parkeak egun duen itxura. I.T.

berri bat jarriko dute ibai gainean. Zubi zaharra kendu eta inguruan osatuko den eremu berria, ubide-tik kanpo berreraikiko dute. Eta, ibaiaren eskuinaldean geratzen den tokian haurrentzako jolas-tokia jarriko dute. Halaber, gune honetan igogailu baten bitartez, Bidebieta auzorako sarbidea ere hobetu nahi dute. Eta Ibarrearekin duen lotura ere hobetuko da norabide biko bidegorri baten bitartez.

Errekaren ibilbide aldaketaren obrekin San Joan jaien ostean hasiko dira eta 6 hilabete inguru iraundo dute.

Elosegi parkea egokituz

Elosegi parkea San Esteban auzoan dago, etxebizitza eremutik maldan gora, eta Montezkueraingo hedatzen da. Elosegi-Marintxo-Enea jauregiaren lurretan kokatuta dago eta orain Udalaren jabegoa da. Hogeita hamar urte atzera egiten badugu, Elosegi parkea jolas-toki ederra eta zabala zen. Dena den, tamalez, urte askotako mantendu ezaren ondorioz belarrez, zuhaitz adar eta enborrez eta goroldioz gainezka zegoen parkea eta bidexkak, lorategiak, eskilarak, eraikinak, harresia... apurtuta edo oso egoera kaxkarrean aurkitzen ziren.

Hala, pasa den urtean Goroldi enpresak bertako garbiketa egin zuen, eta parkeak «hasieran ustena baina aukera gehiago eskaini dezakeela ikusi dute: bide berriak, bankuak, argi sistema, jolasgunea... Elosegi herriko erreferentziatiko bat bihurtzea da helburua». 27.000m²-ko zabalera duen eremua izaki, herriko parke handiena bilakatu da. «Hiri erdigunetik gertu dagoen leku lasai eta ikusgarria da, Tolosako ikuspegi paregabea duena». Inguruarekin bertako zuhaitz eta zuhaiska berriak landatuko dituzte, eta parkean dauden landare mota desberdinak seinaleztatuko dituzte, «bertaratzten direnek hauek bereizten ikas dezaten».

Garbiketa orokorra egin ostean, aurten, beste garbiketa sakonago bat egingo dute, eta parkea bisitatu ahalko da.

Berdeguneen erakusketa

Jarduera hauek guztiak sakonago ezagutu nahi dituztenek Tolosako udaletxeko erakusketa aretora zuzendu daitezke eta bertan ikusi ahalko dute herriko berdegune hauetan egingo diren lanetaz argibideak emateko asmoz Udalak jarri duen lagina. Iradokizunak ere eman ditzakete.

Eremu berdeak Goroldiko langileen esku

H. BELLOSO

Tolosako eremu berdeak esku onetan daudela aitortu beharra dago. Goroldi S.L. Gureak Taldeko Lanbide Zentro Berezia, herriko zuhaitzez, lorategiez eta parkeez arduratzen da. Elkarrekin honen helburua ezintasunak dituzten pertsonen lorezaintza bidez lan munduan barnaratzeko aukera ematea da. Tolosako lantaldean ezintasunik ez duten bi lagun, ezintasun fisikoak dituzten beste bi, gaixotasun mentala duten bi eta ezintasun intelektualak dituzten hamabi langile daude. Taldea hiru multzotan banatuta dago eta langileen segurtasunaz eta formazioaz arduratzen den koordinatzaile batek zuzentzen ditu. Eremu berdeak tamaina eta zailtasunaren arabera sailkatzen dira, horrela errazagoa da tal-

deak eta lana antolatzea. Multzo bakoitzak bere tresneria du, bai makinaria aldetik bai ibilgailu aldetik ere.

Azken zortzi hilabeteetan Elosegi parkeko proiektuan murgilduta egon dira, eta amaierako emaitza ikusita, lan trebea egin dutela nabaria da. Lanak hasi zirenean parkearen egoera tamalgarria zen eta itxuraldatzea zaila izango zela argi zegoen. Lanek irauten duten denboran enpresako langileek parkea erabat aldatu dute. 14.000m² sastraka, 85 m³ sastar eta 50 zuhaitz oinarri ezabatu dituzte. 2.240 m² bide erabiltzeko moduan jarri dira eta 72m² eskilara berritu eta garbitu egin dira. Harrisiak berreraiki egin dituzte eta gainean zituen sasiak eta belarrak kendu egin dituzte.



Euriak bustitako emanaldia

KULTURA ■ Gehiago entzuteko gogoz geratu ziren larunbatean, Bonberenean, Umama II-ren aurkezpen kontzertura joan zirenak. Izan ere, Bonberneko futbol zelaian zen kontzertua. Hala, hasi eta gutxira, eguraldia txarrera egin zuen, eta bertan behera utzi behar

izan zuten saioa Juantxo Zeberio piano-jotzaile eta konpositoreak, Hodeiertz abesbatzak eta Enrike Azurza bere zuzendariak eta Gonzalo Tejada kontrabaxuak, Hasier Oleaga bateriak eta Mikel Andueza saxoak. JOXEMI SAIZAR



Umorez beteriko asteburua

KULTURA ■ Bakarriketen asteburua igaro da Tolosan, *Monologoka* izenarekin. Jende ugari izan da antolatutako lau saioetan. Ostiralean hasi zen Rafael Alvarez *El Brujo* eta *Lazarillo de Tormes*-ekin; larunbatean jarraitu zuen Jose Ramon Soroz eta *Sommer jaunaren istorioa*-

rekin, eta Ruben Arrospide eta Dani Perezekin (irudian). Azken saioa, *Los monologos de la vagina*, herenegun izan zen. Estreinak aldia zen aurtengoa, baina ziur bigarrena ere egongo dela, harrera ona izan baitute emanaldiek. N.G.



Corpus Eguneako prozesioak gurean

ERLJIJOA ■ Corpus Eguna izan zen herenegun eta ohiko prozesioa izan zen ikusgai Tolosako kaleetan zehar. Musika Bandak jarri zituen doinuak Udaleko ordezka-

riak eta aurten jaunartzea egin duten gaztetxoak prozesioan loreak botatz zihozten bitartean. Prozesioa ikustera ere jende asko gerturatu zen. J. SAIZAR

Gipuzkoako Urak enpresak kudeatzen ditu Tolosaldeko herri gehienak, eta ibilaldi baten bidez ura nola tratatzen duten ikusteko, udaletako ordezkariak gonbidatu dituzte.

Uraren bide bat ezagutzen

NEREA URBIZU

Beasain aldera joan ziren atzo Tolosaldeko udaletako hainbat ordezkari, Arriaran urtegiaren funtzionamendua hurbiletik ezagutzeko asmoz. Gipuzkoako Ur Kontsorzioa Tolosaldeko hainbat herriko uraren kudeaketaz arduratzen da, eta atzo, Tolosaldeko udal guztiei gertutik uraren ibilbidea ezagutzera eman nahi izan zieten. Horretaz, Josetxo Saizar Gipuzkoako Ur Kontsorzioako Teknikaria eta Iñigo Elosegi Kontsorzioako Zuzendari-Gerentea arduratu ziren.

Gipuzkoako Urak Tolosaldean burutzen ari den 2010 arteko azpiegitura planaren eraginak kontuan hartuta, «Ezagutzen al dugu edaten dugun ura? Zein da gure etxeko iturrira iritsi arte urak jasotzen duen tratamendua? Eta ur zikinak nora doaz?» bezalako galderak erantzuten aritu ziren. Uraren ziklo osoan parte hartzen duten instalakuntza guztiak gertutik ezagutu zituzten goizean zehar, eta bide batez, Ibiur urtegia ere bisitatu zuten. Bertan, Imanol Pildainek eman zituen hainbat datu.

Bilketa eta tratamendutik hasi, horniketarekin jarraitu eta ur zikin biltzea, garbiketeta eta isurketa arte.

Uraren bidea etxeetara

Josetxo Saizarren bidez, ibaieetatik bildutako urtegia hobeto ezagutu zuten bertaratutako zikloko uraren Arriaranen antzekoa izango da, ta-
mainaz bikoitza ia, baina funtzio-

namendua eta itxura oso antzekoa izango du. Duela hamar urte Ibiur egiteko obra esleitu zuten eta orain, laster bukatuko dutela ematen du. Arriarango urtegioko presaren barruan izan ziren eta bertan dauden tresnak ikusi zituzten: «Hodi lodi hauetan urak dituen ezaugarriak ikusten dira kalitatearen aldetik, eta hemendik, arazte-gira doa ura».

Ura behin araztegietara iristen denean, «ura edangarria izateko prozesua ematen da hemen». Horretarako ura oxidatu egiten dute, ozonoarekin, «desinfektatzeko oso eraginkorra da». Segundoro, 100 litro garbitzen dituzte. Fluorua botatzen diote «kari maila baxuagoa izan dadin». Kloroa ere erabiltzen dute azken desinfekzio mailan: «Kloroa botatzea behartuta gaude; desinfektatzeko beharrezkoa den neurria da. 30.000 biztanletik gora hornituz gero, hori egin behar da».

Legorretan saneamendurako

Legorretako hondakin uren araztegia bisitatu aurretik, hamaiketako egin zuten Gipuzkoako Urak enpresaren eskutik. Ondoren, saneamendua nola egiten duten ikusi zuten bertaratutako zikloko kolektoreetara iristen dira estolderia sarearen bitartez». Hainbat fil-
trotatik igaro ondoren, ur hauek ibaira bideratzen dituzte eta «amurrain batek behar duen ur kalitatekoa da iristen den ur hori».



Urak araztegia bideratzen dituzte, bertan ura tratatzeko. Irudian, Saizar ezkerrean, azalpenak ematen. N. URBIZU

Ibiur beteta, 2009 bukaeran

Imanol Pildain Ibiurko obretako zuzendaria eta proiektuaren egilea Bailarraingo presan zegoen, bertan azalduko zirentzat azalpenak ematen. Saizarrek hasieran aipatu bezala, Ibiur eta Arriaran «oso antzekoak dira». Duela urte eta erdi hasi ziren obratan eta pareta dagoeneko ia bukatuta dago. «Urriaren leian urez betetzen has-tea espero dut, baina nire uste edo iritzia besterik ez da».

Urtebetean beteta egotea espero du Pildainek, «eguraldiaren aldaketa bortitzak ez badira gertatzen behintzat. Dena dela», bukatu zuten Pildainek «ura unerren batean behar izango balitz, betetzeko behar den urte hori baino lehen ere eman daiteke. Kasu batzuk eman izan dira».



Urtegi horien barrutik igaro ziren, funtzionamendua hobeto ulertzeko. N. U.

Gaur Bidanian kadeteen partidak izango dira

Pilota » Bihar seniorrak Tolosan eta jubenilak Alegian ariko dira V. Hitza Txapelketako norgehiagoketan.

ERREDAKZIOA

Hitza Pilota Txapelketako gaurko norgehiagokak Bidanian, kadeteen artean hauek dira: eskuz banaka guztiak, Urbietan-Asuabarrena; Loban-Loidi; Santxo, Iribarren eta Lizeaga-Barberena. Guztira, lau partida.

Bihar, ordea, Alegian jubenilen txanda da 19:00etatik aurrera: Jaunarena-Olalde eta Galarza-

Lukin; Epelde-Barberia eta Xabi-Perez; Apezetxea-Galartza eta Oartzabal-Ulangu; azken partidari, Jauregi-Agiriano eta Barberena-Pazos.

Beotibarren seniorrak ariko dira 19:00etan: I. Beitia-K. Galarraga eta Lazkoz-Keralt, eta Andreu-Irureta, Jauregi-Gomez bikoteak. Txikien arteko datozenak, ostira-lean eta larunbatean izango dira herri diferenteetan.

Aurreko emaitza batzuk

Seniorren arteko partida bat jokatuta zuten Tolosan larunbatean, eta Etxeberria-Telletxea izan ziren irabazleak Insauti-Atutxaren kontra, 22-20ko emaitzarekin.

Z Zurea da hitza

info

Lehenengo Blogs & beers-a Alegian

TXINTXARRISFERATIK

Txintxarrisferak Alegialdeko I. Blogs&beers-a antolatuta du. Txintxarrisferan lehen B&B (blogs & beers) hau, hilaren 31n, larunbatean, hain zuzen, izango da.

Afaria Arrueneren egiteko asmoa dugu. Izena txintxarriMEDIako ekitaldian eman dezakezu. Interresgarri litzateke lehen bailehen izena ematea. B&Bari buruz zerbait esan nahi izanez gero sartu txintxarriMEDIako blogs&beers taldera. Helbidea: <http://txintxarrisferaning.com/events>.

 TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA 
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
<ul style="list-style-type: none"> • ERIZAINNTZA LAGUNTZAILEA • FARMAZIA
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
<ul style="list-style-type: none"> • DIAGNOSI IRUDIA • ERRADIOTERAPIA • OSASUN DOKUMENTAZIOA • GIZARTE INTEGRAZIOA • HAUR HEZKUNTZA
IZEN EMATEA: Maiatza - Ekaina
Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA Tel.: 943-673629 www.inmakuladatolosa.com

Manuel Larramendi Bazkunaren txangorako izen-ematea zabalik

Aiztondo » Ekainaren 7an egingo dute 'Arabatik Gaztelara bidean' lelopean; izena emateko azken eguna ekainaren 2a izango da.

ERREDAKZIOA

Manuel Larramendi Bazkunak Arabatik Gaztelara bidean lelopean irteera antolatatu du heldu den ekainaren 7rako, larunbatarekin. Irteera monografikora joan nahi duenak izen-ematea zabalik du dagoeneko, ekainaren 2ra arte, datorren astelehenera arte, hain zuzen ere.

Txango monografiko hau Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatzen duen *Euskal Herriaren Barrena* egitarauaren barruan kokatzen da.

Egunaren nondik norakoak

Txango honetarako, 09:00etan irtingo da taldea, ekainaren 7an, Villabonako kiroldegia aurretik (partaideen jatorriaren arabera alda daitekeela azaldu dute). 11:00ak aldera Gesaltza-Añanako haranaren bisita gidatua izango dute.

Egurdian, berriz, Villanañeko Varonatarren Dorretxeari bisita egingo diote. Ondoren, nahi dutenek bere kaxa bazkal dezaketela azaldu dute edo Larramendi Kultur Bazkunak proposatutako jate-txan bazkaltzeko aukera dute.

16:30ean Valdegoberia, Pinedo edo Corro bezelako herrietan dauden eremitorio beranterrontar batzuen bisita. Honen ondoren, itzulera bidea hartuko dute, Villabonara 20:30 inguru iritsiko direlarik.

Txango monografiko hauetan 10 eta 80 urte bitarteko euskaldunek har dezakete parte, arduradunek jakitera eman dutenez. Egurdiko bazkariari dagokionez bi aukera daude: norberak bere bazkaria eramatea eta bere kontura bazkaltzea, edota antolatzaileek hautaturiko ostaturen batean egitea otordua. Lehenengo aukera egiten dutenek 20 euro inguru ordainduko dute bidaia eta bitak egiteagatik, eta bigarren aukerak 40 euro inguru.

Informazio bila nora jo

Interesatuak informazio gehiago jaso nahi izanez gero 943 696450 zenbakira dei dezakete (10su) edo txangoak@topagunea.com helbide elektronikora idatzi. Manuel Larramendi Bazkunak eskuorriak eman ditu argitara, aurten antolatutako asmo duen eskaintza guztiaren berri emanez. Eskuorriak, Larramendi Bazkunean bertan jaso ahal izateaz gain, kultur etxeetan eta ohiko informazio-guneetan jaso liteke.

Jon Sasiainek brontzea lortu du Espainiako Junior Txapelketan

Villabona » Olaederrako pultsulariak Orkoiainen aritu ziren; Igor Sasiainek «espero baino emaitza okerragoak» lortu ditu.

ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan Espainiako Halterofilia Junior Txapelketa jokatu zuten Orkoiainen. Villabonako Olaederra taldeko pultsulariek lan bikaina egin zuten beste behin ere.

Jon Sasiainek hirugarren postua lortu zuen 62 kiloko mailan. Txapelketa «oso ona» egin zuen. Eskafoidetik baldiz operatu diote, eta hilabete eskas darama entrenatzen. Hori guztia aintzat hartuta, lan bikaina egin zuen.

69 kiloko mailan, berriz, Igor Sasiainentzat izan zen laugarren postua. Ez zen oso emaitza ona izan berarentzat, izan ere, «taldean hobekien prestatuta zegoen arren, ezin zuen txapelketa aurrera eramana».

Martin eta Quintana, podiumetik at

Angel Martinek eta Mikel Quintanak ezin izan zuten podiuma lortu, 77 kiloko eta 85 kiloko mailatan, hurrenez hurren. Lehendabizikoa laugarren postuarekin konformatu behar izan zuen «bi denboratan flojo-xamar» aritu baitzen, horrek hirugarren lekua kendu ziolarik. Quintanarentzat bosgarren postua izan zen.



Aurtengo txapelketan Bitor Leunda - Juan Karlos Otero eta txapeladunordeak Jabier Zubeldia eta Aitor Landa. HITZA

Leunda-Otero bikotea irabazle Pala Txapelketan

Anoeta » Jaietan jokatu zuten finala; arduradunek «parte-hartzaileen eta lanean aritu diren lana» eskertu dute.

ERREDAKZIOA

Palak garai batean zuen garrantzia berreskuratzen ari da Anoetan. Duela urte batzuk urteroko txapelketak antolatuta ondoren, urte batzutan zehar ez zen horrelakorik antolatuta eta duela bi urte, astean zehar palan jokatzen zutenek, herri mailako txapelketa antolatzea pentsatu zuten, urtean zehar elkarren aurka jokatzen ez zuten bikoteak, elkarren aurka jokatzeko aitzakia modura dute. Pentsatu eta egin. Oso txapelketa gogorra izan

zen eta berriz ere urteroko antolazko erabakia hartu zuten.

Berreskuratutako ohiturari eutsiz, aurten ere ospatu dute txapelketa. Apirilaren eman zioten hasiera sei bikotek. Martin Uzkudun-Joxe Etxaniz; Asier Yurrita-Unai Bengoa; Joxean Kortajarena-Jeremias Perez; Manex Arrieta-Jon Ander Goikoetxea; Bitor Leunda-Juan Karlos Otero; eta Jabier Zubeldia-Aitor Landa.

Txapelketaren hasiera

Ostiralero jokatu zituzten 3 partida, elkarren aurkako ligaxkan. Tartean «oso partida onak eta gogorrak» jokatu ondoren, Bitor Leunda-Juan Karlos Otero, Manex Arrieta-Jon Ander Goikoetxea, Jabier Zubeldia-Aitor Landa eta Martin Uzkudun-Joxe Etxa-

niz bikoteak sailkatu ziren finalerdietarako. Bada, Bitor Leunda-Juan Karlos Otero eta Jabier Zubeldia-Aitor Landa sailkatu ziren final handirako.

«Final parekatsua»

Korputsjaiakate joka ari zirela aintzat hartuta, finala festetako igandean jokatzea polita izan zitekeela erabaki zuten pilotariek. Finala nahiko berdindua hasi zen eta 9-9ko berdinketara arte borroka estua izan zen. Halere, Jabier Zubeldiak eta Aitor Landak ezin izan zuten Bitor Leundak ongi lagundutako Juan Karlos Oteroren bi parteen aurka gauza handirik egin eta azkenean, azken hauek, 30-19ko emaitza argiaz izan ziren txapeladunak.

Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida ere jokatu zuten eta Manex Arrieta-Jon Ander Goikoetxea bikotea, Martin Uzkudun-Joxe Etxaniz bikotea baino gehiago izan zen, nahiz eta partida «oso parekatua» joan zen bukaerara arte.

Porra, Lide Aranzaberentzat

Giroa berotzeko antolaturiko porraren irabazlea, berriz, Lide Aranzabe izan zen. Hala, Anoeta bertako produktuez (gazta, babarruna, intxaurrak, pilota, ardo botela...) beteriko otarra etxera eramateko ohorea izan zuen.

Arduradunek «txapelketan zehar parte-hartzaileen eta bai epaile lanetan nahiz markagailuan laguntzen» aritu diren lana goraiatu dute, besteak beste Enrike Urretabizkia, Jabier Otxotorena, Joxema Jauregi, Alberto Alonso eta Juan Oteroren artean «egon den giro polita».

Guztiek ere, afari eder batekin emango diote amaiera aurtego txapelketari, Kuku elkartean.

Zinema euskaraz **berriarekin**

Maiatzaren 31n, larunbata
filma DVD formatuan

nómadak tx

izandako desio batek abiatzen da. Txalaparta, euskal kulturaren sinbolo eta hotsa den hori, pertsonen topaleku ez ezik, kulturen arteko ore izates nahi dute. Desira horiek bultzatuta, bi protagonistek planetako lekuri ezegunetara bidaiatzen dute ahotz eta soinuz ezberdinen bila. Indiako adivasiak, Lapontiar samak, Mongoliako estepako biztanleak, eta herri salazarrekin batera biziko dira. Topaldi bakoitza paregabea izango da. Ezusteko eta esperientzia bakarez josit.

berria + 6,95€


OHARRA: Irteerak bukatu arteko eskaintza

NEURE BURUA NIK NEUK GIDATZEKO PREST!

WWW.MONDRAGON-EDU-PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

2008



Herriko jendearen izerdi, algara eta haserrei esker Garagardo Festa aurrera doa. ASIER IMAZ

200 lagun lanean, 800 litro garagardo zain eta bi karpa erraldoi zabalduko dira etzi

Ibarra » V. Garagardo Festa etzi hasi eta igandean amaituko da, Jdanaik herriko plazan bi karpa erraldoi jarri dituzte: bata 700 pertsoneri jana emateko erabiliko dute eta bestea edaria zerbitzatzeko, 800 litro garagardo inguru. Festaren hasiera hilaren 29an 19:00etan izango da beraz, zinta mozketa eta karpn irekierarekin.

ASIER IMAZ

Ibarrako V. Garagardo Festa etzi hasi eta igandean amaituko da. Jdanaik herriko plazan bi karpa erraldoi jarri dituzte: bata 700 pertsoneri jana emateko erabiliko dute eta bestea edaria zerbitzatzeko, 800 litro garagardo inguru. Festaren hasiera hilaren 29an 19:00etan izango da beraz, zinta mozketa eta karpn irekierarekin.

Antolatzaileei dagokienez, urteroko legean, herriko talde ezberdinek antolatu dute bi helbururekin.

Herria eta ekonomia

Talde antolatzaileen esanetan, helburuak «diru laguntza lortzea eta auzolanaren bitartez herri giroa bultzatzea» izango dira, «azkeneko helburu hau azpimarratu» nahi dutela ere aipatu dute. Horretarako azken Garagardo Festako

datuak eskaini dituzte non «230 pertsonen lan egin zuten, plazan mahaiaik eta aulkiak jartzen laguntzen duten haurretatik 71 urte bitarteko pertsonetara». Aurten ere

helburu bera daukate, «pozgarria baita inongo norbanako interesik gabe horrenbeste jende lan egitea, diru guztia herri mugimendurako baita».

GAZTETXEAK ERE FESTAREKIN BAT EGINGO DU

Ibarrako Gazte Asanbladak V. Garagardo Festari bere ukitua eman nahi izan dio. Horretarako hilaren 30ean eta 31n kontzertuak antolatu ditu Gaztetxean 22:00etatik aurrera. Ostiralean Ezinean eta Gualitxo taldeen kontzertuak egongo dira. Larunbatean berriz Arkada eta Nunbait taldeek joko dute.



Gutunak

AHTren sondeoak Zizurkilen

Zizurkilen sondeoak hasi dira. Bapatean harrapatu gaituen gaia izan da, azken unean abisatu baitzigu- ten nola Abiadura Handiko Trenaren ibilbidea metro gutxi batzuk aldatzeko asmoa zegoen.

Gauzak horrela, hasiera batean Zizurkilen bakarrik izango zela zirudien baina Tolosan ere sondeoetako lurjabeekin harremanetan jartzen ari dira. Beraz, badirudi Zizurkil-Tolosa tramo aldatuko dutela, nahiz eta Anoetako Udalean ez jaso oraindik inongo informazio- ziorik. Argi eta garbi ikusten da zein dagoen eta zein ez dagoen Udalean.

Zizurkilgo sondeoetan zentra- turik, Udalak «ez omen daki» hasi

direnik. Hori da jaso duguna be- raiengandik eta ez digute kasurik egiten beraiekin harremanetan jartzen saiatzen garenean. Hasie- ratik jaso ditugu hainbat eta hain- bat ukazio informazio aldetik eta horrela jarraitzen dugu. Ez dutela diote baina ez dugu zalantzarik ba- dutela.

Udaletxera informazio eske joa- nez gero, Maria Angeles Lazkano- rengana zuzentzen gaituzte eta deituko gaituela dio. Orain bi hila- bete izan genuen berarekin bilera eta ez dugu bere deirik jaso; guk deitu behar izan diogu.

Besterik gabe, sondeoetan ekin- tzaren bat egiteko deia jasotzean, azaltzera animatzen zaituztegu egoera salatuz.

Amagoia Eskudero. Aiztondo AHTrik ez!

Laburrak

Bihar eta etzi hitzaldiak Kirol Astearen barnean

ALEGIA » IV. Kirol Astea ospatzen ari dira Alegian, Herriko kirol ba- tzordeak antolatuta. Bihar 19:00etan Marimendi taldearen hitzaldia egongo da Kultur Etxeko areto nagusian, *Mont Blanc, lau bide Euskal Herriko emakumeentzat* goiburupean. Maiatzaren 29an, etzi, Iñaki Arratibelek *Bendajeak, esgintzeak, kolpeak eta zaintiratuak* izeneko hitzaldia eskainiko du 19:30ean, biharko hitzaldiaren moduan, Alegiako Kultur Etxean.

Ohiko bilkura egongo du Udalbatzak 18:00etan

IBARRA » Udalak ohiko bilkura egin- du gaur 18:00etan udaletxean. Eguneko gai-zerrendan bost pun- tu egongo dira eta hauen artean «apirilaren 22an eginiko ohiko bil- kuraren akta onartzea» egongo da, bertan Haur Eskola kontsor- tzioren esku uztearen lehen urra- tsa eman zuen Udalbatzak. Horre- taz gain «Udaleko langileen ordu- tegi eta bertaratzeko kontrola arautzeko araudiaren hasierako onarpena» bozkaturiko dira. Ezker abertzaleak herritarrei bilkurara agertzeko deialdia luzatu die.

Maiatzaren amaieran hiru kultur ekitaldi

BELAUNTZA » Kultur Etxeak Gal- tzaundi eta Kutxaren laguntzare- kin kultur ekitaldiak antolatu ditu aste honetarako. Etzi Idoia San- chez ipuin kontalariak saioa eskai- niko du 18:30ean. Ostiralean An- gel Cuerdoren bideo emanaldia egongo da 20:00etan eta larunba- tean, Harnaika Bertute taldeko bi bertsolarirekin bertso afaria egon- go da Benta Jatetxean. Izena ema- teko Udaletxera, Tabernara edo Kultur Etxera joan daiteke.

4-12 urte bitarteko haurrentzat udalekuak

IBARRA » Uzturpe Ikastolak eta Iba- rrrako Udalak *Oporretan Euskaraz 2008* udaleku irekietarako izena emateko aukera zabalik dagoela jakinarazi dute. Izen-ematea Ku- txako 2101 0043 16 0010996767 kontu korronte zenbakian dago- kion dirua sartuz eta ordain agiria Ikastolara eraman ez egin behar da. Deialdia 4-12 urteko ibar- tzailearen 1etik 30era bitarteko eki- marena izango da, 09:30etik 13:00etara. Seme-alaben kopu- ruren arabera ordainduko da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Eztia eta paperez egindako panpinak, plazako 2 postuetan. N. GARZIA



Jende ugari ibili zen bereziki goizean zehar. N. GARZIA



Eskulenen erakusleihogaregia izan zen herenegungoa. N. GARZIA



Igandean erakusketak ere ikusgai egon ziren. N. GARZIA



Katamalo emanaldiarekin amaitu zen igandean Kultur Astea. HITZA

Mugertza II.aren aurka jokatu du Urrezko Aizkoraren finala Rekondok

Leitza » Ruben Saralegi eta Oihan Larretxearen arteko lehia parekatua izan zen arren, leitzarra finaletik at gelditu zen.

N. GARZIA

Jon Rekondok aise irabazi zion larunbat gauean Arkaitz Jauregiri 23 urtetik beherako kategorian. Ruben Saralegik, berriz, Oihan Larretxearen aurka galdu egin zuen eta finaletik kanpo gelditu da.

Urrezko Aizkolarien Txapelketako finalerdiak larunbat iluntzean jokatu ziren Urrotzen eta Gabriel Saralegi herri kirol antolatzailak azaldu duenez, «Rekondo oso ongi arituz. Hasieran urduri xamar zegoen baina gero gogor arituz. Sasoi ederrean dago». Finalerdiak gaititu ondoren, Mugertza II.aren aurka ariko da leitzarra. Saralegiren ustez, finala «bizi-bizia» izanen da.

18 urtetik beherakoen mailan saioa parekatua izan zen arren, Saralegik azkenean galdu egin zuen.

Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Iruia. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarar autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

45 postu artisau azokan

Leitza » Ehoziri topaketa ere egin zuten Liñoputzukoek antolatuta eta Nafarroako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 110 lagun bildu ziren.

NAIARA GARZIA

45 artisautik gora elkartu ziren herenegun Leitza egin zuten artisau azokan. Eurria egiteko arriskua zegoen arren, azkenean antolatzailak azoka plazan egitea erabaki zuten. Goizean ez zuen euririk egin, baina arratsaldean beste

urteetan baino lehenago amaitu zuten, eurria hasi baitzuten.

Urtero egiten duten azokan aurretik ehoziri topaketa egin dute, eta bertan 110 lagun bildu ziren. Ehoziri elkartetik azaldu dutenez, «bi urtetik behin egiten dugu topaketa eta aurten laugarren aldida».

Ehoziri elkartekoek opari bana eman zieten kanpotik etorritako lagunei, eta hori dela eta, zozketa egin zuten. «oparien, mahaien eta aulkien gastuei aurre egiteko». Sarritutako zenbakiak hauek izan ziren: 1841, 898, 1720, 1090, 824 eta 881. Irabazleek 676 52 52 82 zenbakira deitu behar dute 15 egunetan. Artisau guztiak eskoletako jantokian bazkaldu zuten eta trikitilariak ere bertan izan ziren bazkaldu ondoren giroa alaitzeko.

Bestalde, aste osoan zehar beza-

laxe, erakusketak ikusgai egon ziren udaltxean eta jende dezente hurbildu zen bai lehenengo solairura, ehoziri elkarteko erakusketak ikustera, bai bigarren solairuan zeuden 3 erakusketak ikustera.

Iluntzean, Katamalo

19:30ean, Bihotz Bakartien Klubak eskainitako *Katamalo* emanaldiak 100 sarreratik gorasaldutuztuz eta kontzertu honekin amaitu zen aurtengo Kultur Astea.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Ezker abertzaleak deituta, udal demokratikoen aldeko *Demokrazia zero* elkarretaratzea udal txete aurrean 19:00etan.

■ **Tolosa.** Tolosaldeko Arrantzale elkarteak antolatuta, igandean Gipuzkoako Amuarrain eta Barbo Arrantza Txapelketa izango da Ori ibaian, Zerkausi inguruan, benjamin, alebin eta infantil mailetan. Izen-ematea, Usabal kiroldegian.

■ **Ibarra.** Udalak 2008ko San Bartolome jaietako egitaraurako bozeto lehiaketarako lanak ekainaren 20a baino lehen Benito Izagirre kultur etxean entregatu behar dira. Gaia libre izango da. Ibarra bizi edo eta ikasten duten haur guztiek aurkeztu ahal izango dute.

Musika

■ **Tolosa.** Tolosako eta Tobera (Segura-Zegama) musika eskolentako ikasleen kontzertua Udal Musika Eskolan 19:00etan, XIV. Musikaria astearen barruan.

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Amalur jardunaldien baitan, Alberto Iñurategiren *Begiz begi* ikus-entzunezkoa Leidor aretoan 20:00etan.

Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Vignemale mendira irteera antolatuta du Oargi mendi elkarteak ekainaren 6tik 8ra. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 670648.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Ikasturteari agur esan diote

Bidegoian » Ikasturte amaierako festa ospatu zuten larunbatean; emanaldiak eta merienda izan ziren, besteak beste.

ERREDAKZIOA

Ikasturtea amaitzear dago, eta hori ospatu behar da. Asmo horrekin bildu ziren larunbatean 120 lagun inguru Bidegoiango eskolan. Urteroko ohiturari jarraituz, jaialdi berezia antolatu zuten ikasle, irakasle eta gurasoeekin. Arduradunek azaldukoaren arabera, «oso ongi irten zen dena», eta oso ondo pasa zuten Eskolara bertaratu ziren guztiek.

Festari 15:30ak aldera eman zioten hasiera. Ikasleek, ikasturtean zehar prestatutako emanaldia eskaini zieten bertaratu ziren guztiei. Antzerkiak, musika eta dantza izan zirelarik protagonistetako batzuk. Ondoren, Bidegoiango haurrek grabatutako irudiekin proiektio bat eman zuten, denek batera ikusteko.

Ekitaldiei jarraipena emateko, jolasak egin zituzten ikasle, irakasle eta gurasoentzat. Egunari berriz merienda gozo batekin eman zireten amaiera. Hau guraso elkarteak prestatu zuten. Gisa honetan eman zioten ongi torria udaberriari, eta hurrengora arte eman zioten ikasturteari.

Bestalde, Bidegoian Nolega (Normalizazio Legearen Garapena) programaren baitan dago. Honen euskara ahoz nola erabiltzen den ikusteko eta hura hobetzeko helburua du. Honenbestez, jaialdi hau programa horren baitan Bidegoiango eskola aurrera eramaten ari den beste ekimenen artean sartzen da.



Jaialdiari amaiera emateko, Guraso elkarteak antolatuta merienda egin zuten. HITZA



Ikasturtean zehar prestatutako emanaldiak eskaini zituzten ikasleek. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Suhar eta Nahia Beldarrain Aierza (Tolosa). Gaur 4 urte. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.

txokoa
h

gau bakoitzerako
2 pertsonentzako afaria
zozketan deitu eta eskuratu

Maiatzaren 29tik
ekainaren 1a bitartean
ospatuko den
Ibarrako Garagardo Azokan

